

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PASAIAKO UDALAREN 2017-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu du Pasaiako Udalaren eta bere lau erakunde autonomoen 2017ko ekitaldiari dagokion ekonomia eta finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena. Lau erakunde autonomoak dira: Pasaiako zaharren udal egoitza fundazio publikoa; “Pasaia Musikal” Musikaren udal fundazio publikoa; Pasaiako Udal Euskaltegia fundazio publikoa eta Pasaiako Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoa.

2017ko ekitaldiko urteko kontuak direla-eta, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren, Udalaren eta erakunde autonomoen 2017ko abenduaren 31ko balantzea eragiten dutenak. Gainera, Kontu Orokorrak ez ditu Pasaiako Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoaren finantza egoerak barne hartzen, jarduerarik ez badu ere, desegin gabe dagoena.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorraren finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du Udala kaudimen ekonomikoko egoeran dagoela, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak eta zorpetu beharrik izan gabe –edo are, egungo bolumena murriztuta- etorkizuneko inbertsioei aurre egiteko berezko baliabideak dituen.

Gainera, adierazi da udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an bete egin direla aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak, nahiz 2016ko ekitaldiaren aldean, gastu zenbagarriaren bariozioak Espainiako ekonomiaren epe ertaineko Barne Produktu Gordinaren hazkuntzako erreferentzia tasa (% 2,1) gainditu zuen eta horrek gastuaren araua urratzea dakar.

Bai Udalak bai bere erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz ez-betetzeak azaleratu diren Langile gastuetan (erretiro aurreratuko sariak PFEZetik salbuetsitako lan-etekintzat jo dira) eta Administrazioako kontratazioan (Pasaia Musikalen langileen egiturazko beharrianak betetzeko kontratu bat; 3 kontratu epea gaindituta luzatzea; eta 202.324 eta 106.812 euroren gastuak, hurrenez hurren Udalak eta Pasaiako Zaharren Udal Egoitzak publikotasunik eta lehiarik gabe izapidetutakoak).